

Emakumeentzako

Jabetze ESKOLA

Arrasate

2011ko Iraila-Abendua

ikastaroak·cursos

EMAKUMEENTZAKO JABETZE ESKOLA

Berriro ere gonbidatu nahi zaitugu hurbil zaitezen emakumeontzako topaketa, prestakuntza eta hausnarketa gune honetara.

Antolatutako ditugun ikastaro eta eztabaida foroaren bidez, begirada kritiko bat landu nahi dugu, gure errealitate pertsonal, sozial eta politikoari buruz hausnartzeko eta emakumeek eta feminismoak egin duten ekarpena ikusi eta haren berri izateko.

Emakumeok elkartzeko eta begirada hori lantzeko espazioa izan nahi du Jabetze Eskolak: gure herrian, jendartearen eta politika publikoetan parte hartu eta eragin nahi dugulako. Gure eskubideak erabili nahi ditugulako eta berdintasun benetakoa eta eraginkorra aldarrikatu nahi ditugulako.

Zatoz!, aukeratu, proposatu eta parte hartu!

IKASTAROA

01 IRAKURKETA KRITIKO-FEMINISTA

Irakaslea: Zaida Fernandez
Noiz: eguenetan (17:30 - 20:00)
Datak: urriaren 27an, azaroaren 17an, abenduaren 15ean
Hizkuntza: euskara eta gaztelania
Izena emateko epea: urriaren 14ra bitartean
Matrikula: 12 € / 17 €

Ikastaroaren deskribapena:
Mugimendu feministaren borroka eta emantzipazioak oinarria izan du feminismoaren barruan dauden korronteetako kontzeptuetan eta ekarpen teorikoetan. Tailer honetan berreskuratuko ditugu pentsamendu feministaren hainbat genealogia eta horien gainean eztabaidatuko dugu, horretarako egile eta obra klasikoak baliatuko ditugu, izan ere, horien hausnarketak eta kontzeptuak izan ziren feminista ekintzaileen abiapuntuak.

* Hurrengo hiruhilekoan ikastaroak jarraipena izango du.

IKASTAROA

02 EMAKUMEEN URRATSAK LITERATURAN

Irakaslea: Isa Castillo, Josune Muñoz eta Iratxe Erretolaza
Noiz: egubakoitzetan (17:00 - 21:00)
Hizkuntza: euskara
Datak: urriaren 14an, azaroaren 18an, abenduaren 16an
Izena emateko epea: urriaren 4ra bitartean
Matrikula: 18 € / 23 €

Ikastaroaren deskribapena:
Ikastaro honek euskal literaturan emakumeek egin dituzten ekarpenak ezagutaraztea du helburu nagusi. Bide horretan, genero literario nagusietan emakume sortzaileek eginiko proposamen literarioak aurkeztuko ditugu, generoz genero, eta hezkuntza literarioak testuetara hurbiltzeko garatu izan dituen eredu matxistak gainditzeko saioak egingo ditugu. Batetik, emakume sortzaileen ekarpena ikusgarri egingo da; eta bestetik, irakurle modura literatura geureganatzeko hartu ditugun zenbait ohitura eta joera zalantzan jarri nahiko ditugu. Literatura-testuen irakurketa eginez, parte-hartzea eta eztabaida bultzatuko ditugu, betiere, ikuspegi feminista abiapuntutzat hartuz.

* Hurrengo hiruhilekoan ikastaroak jarraipena izango du.

IKASTAROA

03 EMAKUME IDENTITATEA ETA JABETZEA

Irakaslea: Pepa Bojô
Noiz: martitzenetan (18:00 - 20:00)
Hizkuntza: gaztelania
Matrikula: 24 € / 30 €
Iraupena: 16 ordu

Ikastaroaren deskribapena:
Ikastaroa topagune bat da, beste emakume batzuekin gure genero nortasunari buruz hausnartzeko, hau da, zelan ikasi dugun emakume izaten, zer esan gura duen horrek gure iritziz, zelan baldintzatzen gaituen gure jarreretan, gauzak egiteko moduan, sentitzeko moduan, harremanak egiteko orduan eta batez ere zelan eragin duen horrek guztiak gure jabetze gaitasunean, hau da, era autonomoan gure bizitza kudeatzeko gaitasuna, eta boterearekin dugun harremana, bai pertsona garen neurrian bai talde moduan.

IKASTAROA

04 EMAKUMEAK KAMERAREN ATZEAN

Irakaslea: Lara Izagirre
Noiz: astelehenetan (18:00 - 20:30) eta zapatu batean (grabaketa)
Datak: urriaren 10ean, 17an eta azaroaren 7an, 14an, 21ean, 28an (astelehenetan) eta azaroaren 26an (zapatuan)
Hizkuntza: euskara
Matrikula: 35 € / 41 €
Iraupena: 23 ordu

Ikastaroaren deskribapena:
Film laburrak egiten ikasi nahi al duzu? Kameraren atzean jarri eta film labur bat ekoizteko eman beharreko pauso guztiak egiten ikasiko duzu tailer honetan: gidoia sortzen, planoak hartzen, grabatzen zein editatzen. Gutxiitan ikusten ditugu emakumeak kameraren atzean. Komunikabideen garaian bizi gara; irudiek eta pantailek bizitzako txoko guztiak betetzen dituzten aroan. Irudi horien bidez, jendarte honetako prozesuak kontatzen ditugu. Horietan beharrezkoa da emakumeen ikuspuntua egotea. Emakumeen lana ikustarazteko tresnak eskainiz, eskubide berdintasunean oinarritzen diren film laburrak sortuko ditugu.

TAILERRA

05 NIRE GORPUTZAREN BILA

Irakaslea: Josune Monton
Noiz: azaroaren 4an (egubakoitzean) eta azaroaren 5ean (zapatuan)
Hizkuntza: euskara
Ordutegia: egubakoitzean: 18:00 - 21:00 / zapatuan 10:00 - 14:00 eta 15:30 - 18:30
Izena emateko epea: urriaren 26ra bitartean
Matrikula: 15 € / 20 €
Iraupena: 10 ordu

Ikastaroaren deskribapena:
Gorputzaren bitartez sentitzen, gozatzen, sufritzen dugu. Eta batzuetan gorputzaz ahazten gara. Baina nor naiz ni gorputzik gabe? Nor naiz ni nire esku, begi, ahots, sentimenik gabe? Tailer honen bidez gure gorputzarekin bat egingo dugu, gorputzaren bidez esperimentatzeko, gure barruko maparen ibilbidea egiteko. Taldearekin batera norberaren barrualdea ezagutzeko bidaia izango da. Elkar ezagutzeko jolasak proposatzen dizkizuet, edo gaitzeko. Gure buruaren kontzientzia izateko eta baldintzak hausteko jolasak. Gutako bakoitzaren baitan aurkitzeko dagoen altxor bat dago.

FOROA

06 JABETZE ESKOLAREN FOROA

Kafe-tertulia: "Feminismoaren erronkak Arrasaten"
Data: egubakoitzean, urriaren 21ean
Lekua: Seber Altube plaza
Ordua: 17:00etan
Parte hartzeko, izena eman behar da Emakume Txokoan, urriaren 14a baino lehen
Bakarriketa-konklusio dramatizatuak egongo dira,
Belen Nevadoren eskutik

Jardueraren deskribapena:
Arrasateko (eta inguruko) emakumeak mahaiaren bueltan elkartzea da asmoa: feminismoaren eta haren aldarrikapen eta espresioen inguruan ditugun iritziak, esperientziak, zalantzak, galderak, eta abar, partekatzeke.
Feminismoaren ekarpena eta erronkak izango ditugu mintzagai eta eremu horretan Arrasaten bizi dugun egoera aztertuko dugu, eta zergatik ez, denon artean Arrasateko agenda feminista osa dezakegu: lehenetsunak, gaiak, aldarrikapenak, parte hartzeko eta antolatzeko erak, Jabetze Eskolak eskaintzen dizkigun aukerak, erakundeekin izan beharreko interlokuzioa, jorra dezakegun bidea...
Hori guzti a kafe eta pastekin eta elkartzeko eta konpartitzeko gogoarekin goxatuko dugu.

Animatu!!!

Argibideak:

Izena emateko epea: irailaren 26tik 30era bitartean (geroago marxan jartzen diren ikastaroen kasuan, bakoitzean zehaztuko da epea).
Ikastaroak **Emakume Txokoan** egingo ditugu, besterik adierazi ezean.
Matrikula:
Plaza mugatuak.
Izena emateko, inprimakia bete behar duzu Emakume Txokoan.
Ordainketa: Emakume Txokoan eskuratuko duzuen kontu zenbakian.
Izena emateko ordutegia:
Astelehenetik eguenera arte: goizean 11:00 - 13:30 eta arratsaldean 15:00 - 19:00
Egubakoitzean: goizean 10:00 - 14:00
Hautzaindegi-zerbitzua: ikastaroetan parte hartzeko hautzaindegia jarriko dugu, aldez aurretik abisatuz gero.
Argibide gehiago Emakume Txokoan:
Telefonoa: 943 79 41 39
emakumetxokoa@arrasate-mondragon.net
www.arrasate-mondragon.net



ESCUELA DE EMPODERAMIENTO PARA MUJERES

Un vez más te proponemos acercarte y participar en este espacio de encuentro, reflexión y formación para mujeres.

A través de los nuevos cursos y del foro de debate que hemos organizado, queremos trabajar una mirada crítica que nos permita conocer y visibilizar la aportación de las mujeres y del feminismo a nuestra realidad personal, social y política.

Porque queremos participar e incidir en nuestro pueblo, en nuestra sociedad y en las políticas públicas. Porque queremos ejercer nuestros derechos y reivindicar una igualdad real y efectiva. Porque queremos aportar una mirada propia a la cultura y ser agentes activas de la misma.....

Jabetze Eskola pretende caminar en ese sentido y para ello, tu participación y aportación son fundamentales.

CURSO 01 LECTURAS CRÍTICAS FEMINISTAS

Profesora: Zaida Gonzalez

Día: jueves (17:30 - 20:00)

Fechas: 27 de octubre, 17 de noviembre y 15 de diciembre

Idioma: euskera y castellano

Inscripción: hasta el 14 de octubre

Matrícula: 12 € / 17 €

Descripción del curso:

Los conceptos y las aportaciones teóricas de las diferentes corrientes dentro del feminismo, han sido la base de lucha y emancipación del movimiento feminista. En este taller recuperaremos y debatiremos sobre las diversas genealogías del pensamiento feminista a través de aquellas autoras y obras clásicas que con sus reflexiones y conceptos marcaron el devenir de la acción feminista.

* Este curso se completará con sesiones posteriores en el siguiente trimestre.

CURSO 02 “EMAKUMEEN URRATSAK LITERATURAN”

Profesora: Isa Castillo, Josune Muñoz e Iratxe Erretolaza

Día: viernes (17:00 - 21:00)

Fechas: 14 de octubre, 18 de noviembre, 16 de diciembre

Idioma: euskera

Inscripción: hasta el 4 de octubre

Matrícula: 18 € / 23 €

Descripción del curso:

A través de este curso conoceremos las aportaciones realizadas por las mujeres en la literatura vasca. En este sentido, se presentarán propuestas literarias realizadas por mujeres creadoras en los principales géneros literarios, género a género, y se llevarán a cabo sesiones que superen los modelos machistas que han sido desarrollados por la educación literaria a la hora de acercarnos a los textos. Por una parte, conoceremos la aportación de las mujeres creadoras, y por otra, cuestionaremos algunos de los hábitos y tendencias que hemos adoptado como lectoras.

Se impulsarán la participación y el debate, a través de la lectura de textos literarios, y siempre desde una perspectiva feminista.

* Este curso se completará con sesiones posteriores en el siguiente trimestre.

CURSO 03 IDENTIDAD FEMENINA Y EMPODERAMIENTO

Profesora: Pepa Bojó

Día: martes (18:00 - 20:00)

Idioma: castellano

Matrícula: 24 € / 30 €

Duración: 16 horas

Descripción del curso:

El curso es un espacio de encuentro para reflexionar con otras mujeres sobre nuestra identidad de género, es decir, cómo hemos aprendido a ser mujeres, qué significa eso para nosotras, cómo nos condiciona en nuestras actitudes, en la manera de hacer las cosas, de sentir, de relacionarnos y ante todo como ha influido todo ello en nuestra capacidad de empoderamiento, entendiéndolo como la capacidad de gestionar de forma autónoma nuestra vida y, nuestra relación con el poder tanto a nivel personal como colectivo.

CURSO 04 “EMAKUMEAK KAMARAREN ATZEAN”

Profesora: Lara Izagirre

Días: lunes (18:00 - 20:30) y un sábado (grabación: mañana y tarde)

Fechas: 10 y 17 de octubre; 7, 14, 21, 26 (sábado) y 28 de noviembre

Idioma: euskara

Matrícula: 35 € / 41 €

Duración: 23 horas

Descripción del curso:

¿Quieres aprender a hacer cortometrajes? Nos colocaremos detrás de la cámara para aprender todos los pasos que hay que seguir en la producción de un cortometraje: la redacción del guión, la toma de planos, la grabación y la edición. No es habitual ver a mujeres tras la cámara. Vivimos en la era de las comunicaciones; un tiempo en que las imágenes y las pantallas invaden todos los espacios de la vida. Esas imágenes, narran los procesos que se dan en nuestra sociedad. Por ello se hace imprescindible que la perspectiva de las mujeres esté presente. Con este fin y usando herramientas que posibiliten visibilizar las obras de las mujeres, produciremos cortos basados en la igualdad de derechos.

TALLER 05 “NIRE GORPUTZAREN BILA”

Profesora: Josune Monton

Fechas: 4 de noviembre (viernes) y 5 de noviembre (sábado)

Horario: viernes: 18:00 - 21:00 / sábado: 10:00 - 14:00 y 15:30 - 18:30

Inscripción: hasta el 26 de octubre

Idioma: euskera

Matrícula: 15 € / 20 €

Duración: 10 horas

Descripción del curso:

A través del cuerpo sentimos, gozamos, sufrimos.. A veces nos olvidamos de él. ¿Pero quién soy yo sin mi cuerpo? ¿Quién soy yo sin mis manos, mis ojos, mi voz, mis sentimientos? Este es un taller para conectarnos con el cuerpo, para experimentar a través del juego, para recorrer nuestro mapa interior. Un viaje hacia el interior de cada una, con la ayuda del grupo. Os propongo juegos para encontrarnos o para perdernos. Juegos para tomar conciencia de nosotras mismas y romper con nuestros condicionamientos. Hay un tesoro por descubrir en cada una de nosotras.

FORO 06 FORO DE JABETZE ESKOLA

World cafe: “Retos del feminismo en Arrasate”

Fecha: 21 de octubre

Lugar: plaza Seber Altube

Hora: 17:00

Para participar hay que inscribirse en Emakume Txokoa, antes del 14 de octubre.

Posteriormente, **Belen Nevado** nos ofrecerá un monólogo-conclusión sobre el tema.

Descripción:

El propósito de este foro es reunir en torno a una mesa a las mujeres de Arrasate y sus alrededores: para compartir opiniones, experiencias, dudas, propuestas, etc. que podamos tener sobre el feminismo y sus diferentes reivindicaciones y expresiones.

Hablaremos de la aportación y retos del feminismo y analizaremos la situación actual en Arrasate respecto a dicho ámbito, y por qué no, podemos completar entre todas una agenda feminista para Arrasate: prioridades; temas; reivindicaciones; modos de participación y organización; posibilidades que nos ofrece la escuela de empoderamiento; la interlocución con las instituciones; el camino a recorrer.....

Y todo acompañado con café y pastas y con el interés de encontrarnos y compartir.

¡Animate!

Información:

Plazo de inscripción: del 23 al 30 de octubre (salvo otras indicaciones para cursos/talleres que empiecen más tarde).

Todos los cursos se realizarán en Emakume Txokoa, salvo que se indique de otra manera.

Matrícula:

Plazas limitadas.

Para formalizar la inscripción será necesario rellenar un formulario en Emakume Txokoa.

Ingreso: en el nº de cuenta que se facilitará al inscribirse en Emakume Txokoa.

Una vez abonado el importe, en caso de baja, no se hará devolución del mismo.

Horario para la inscripción:

De lunes a jueves: mañanas 11:00 - 13:30 / Tardes 15:00- 19:00

Viernes: mañanas 10:00 - 14:00

Servicio de guardería: las actividades contarán con un servicio gratuito de cuidado de niñas y niños, avisando con antelación.

Más información en Emakume Txokoa:

Teléfono: 943 79 41 39

emakumetxokoa@arrasate-mondragon.net

www.arrasate-mondragon.net